KOSTUEN KONTABILITATEA. 2021-eko EKAINA

Teoria

Arrazoitu itzazu erantzun guztiak

1.GALDERA: Kostuen Kontabilitatea eta Kontabilitate Finantzarioa

Aipa itzazu 2 gastu kostuak ez direnak, 2 kostu gastuak ez direnak eta 2 gastu kostuak direnak, baina kopuru desberdinagatik.

2. GALDERA: Kostu motak

Kasu hauetako adibide bana jarri,baldintzak zergatik betetzen dituen azalduz.

a. Kostu Aldakorra, zuzena sailarentzat, zuzena produktuentzat eta ekidingarria.
b. Kostu Mixtoa, zuzena sailarentzat eta zeharkakoa produktuentzat.
c. Kostu Finkoa, zuzena produktuentzat, zuzena sailarentzat eta ekidinezina.
d. Kostu Finkoa, zeharkakoa sailarentzat eta produktuentzat.

OHARRA: Langile kostuaren adibidea, behin bakarrik jar daiteke.

3. GALDERA: Arautegia

1. ¿Biltegietako irteerak baloratzeko, zein irizpide onartzen ditu Kontabilitate Plan Orokorrak eta 2015-eko apirileko ICAC-en ebazpenak?
2. ¿Zer dio arautegi horrek gutxiketei buruz?

4. GALDERA: Aurrekontuak

Aurrikusitako Egoera Balantzea egiteko garaian, ¿zein aurrekontutatik aterako ditugu kontzeptu hauen zenbatekoak?

Ibilgetu eta amortizazio metatuak, Bezeroak, Produktu Bukatuen Bukaerako Izakinak, Kapital Soziala, Ibilgetu Hornitzaileak, Bankuak k/k, Galdu-Irabaziak eta Erreserba Legala.

5. GALDERA: Kostu Standard-ak

a) Enpresa baten Ekoizpen Gastu Orokorrek (bere lan-unitatea Kw/h dira),aldeko desbideraketa teknikoa dute. Aipa ezazu eragin duen barneko arrazoiren bat. Aipa ezazu baita ere, beste desbideraketa bati eragin diezaioken eta Standard-a aldatu beharko litzateken datorren ekitaldirako.

b) Sarreren desbideraketa teknikoa aurkakoa dugu. Aipa ezazu hau sortzeko, kanpoko arrazoi iraunkor bat. ¿Standard-a aldatu beharko litzateke datorren ekitaldirako?

KOSTU HISTORIKOEN ARIKETA

EKONGARRI enpresak, landareentzako 2 ongarri mota ekoizten ditu lehengai berbera erabiliz, EKOMUINA (EKOM):

-EKONGARRI 1 (EKO 1), loredun landareentzako, 10 kg-etako paketeetan.

-EKONGARRI 2 (EKO 2), landare azidofiloentzako, 8 kg-etako paketeetan.

Ekitaldi honi dagozkion datuak:

- Hasierako Izakinak: EKO 1: 300 pakete (4€/pakete)
  EKO 2: 50 pakete (3€/pakete)
  ECOM lehengaia: 1.000 kg. (0,15€/kg.)
- Bukaerako Izakinak: EKO 1: 200 pakete.
  EKO 2: 210 pakete.
  ECOM lehengaia: 5.000 kg.

- Aurrikusitako gutxiketak: EKO 1: 50 pakete; EKO 2: 20 pakete
  EKOM lehengaia: 500kg. (hauetatik 300 kg., EKO 1 produktuari dagokie).
- ECOM lehengaiaren erosketa: 90.000 kg. (0,20€/kg.).
- EKO1 pakete bakoitzak, 10 kg. EKOM lehengai daramatza eta EKO 2-ak, 8 kg.
- Ekitaldiko ekoizpena: EKO1: 6.000 pakete eta EKO2: 3.000 pakete.
- Langile kostua (dena kostu finkoa): EKO 1-entzat: 6.000 euro.
  Aurrikusitako lan-orduak: 1.000 h.; Benetazko lan-orduak: 1.100 h.
- EKO 1-entzat Ekoizpen Gastu Orokorrak:
  - K. Aldakorrak: 700 makina-ordu (10€/h.)
  - K. Finkoak: 3.000 euro (1.400 orduetako aurrikusitako iharduera batentzat, benetazko iharduera 1.300 orduetakoa izan delarik).
- Merkaturatze Kostuak: sarreren % 20a.
- Administrazio kostuak, bi produktuentzat: 1.000€ (kontutan izanik EKO 1 produktu bakoitzari, EKO 2 produktu bakoitzari baino %20a gehiago dagokiola).
- Salmentak: EKO 1: 6.100 pakete (7€/pakete).
- Biltegietako irteera irizpidea: FIFO, ECOM lehengaiarentzat eta LIFO, EKO 1-entzat.

<u>Eskatzen da</u>:

1) **Gutxiketak,** bai euroetan, bai unitate fisikoetan:
   ECOM lehengaiarenak eta EKO 1 produktu bukatuarenak.
2) Egitura Funtzionala (Egozpen arrazionala erabiliz): EKO 1 produktuaren **bakoitzeko ekoizpen kostua kalkulatzea.**
3) EKO 1 produktuaren **emaitza.**

STANDARD-en ARIKETA

Elite.com (ELICO) produktutik 150 unitate egiteko, Standard hauek ezarri dira:

- E lehengaiaren kontsumoa: 3.000 kg. (5€/kg.).
- Hornikuntza Gastu Bereziak: 4.500 euro. (lan-unitatea, lehengaien kontsumituriko kg.-ak direlarik).
- Langile Kostu Zuzena: 10.500€ (525 h. lan egin beharko dira).
- Ekoizpen Gastu Orokorrak: 7.000€ (5.000€ k. finkoak dira) eta jarduera 1500 makina-ordu izango dira.
- Merkaturatze Kostuak: 1.100 € (kostu finkoa) eta k.aldakorra: salmenten %3a.
- Administrazio Kostua: 4.000 €.
- Aurrikusitako Salmentak: 150 unitate (kostu Standard-a baino %50 garestiago).

Ekitaldiko **Benetazko datuak** hauek izan dira:

- Hasierako Izakinak: Lehengaiak: 500 kg; Produktu Bukatuak: 10 unitate; Bideango Produktuak: 10 unitate (hauetako bakoitzak, lehengaien %100a, langile kostu zuzenaren %80a eta ekoizpen gastu orokorren %20a darama).
- Bukaerako Izakinak: Lehengaiak: 200 kg; Produktu Bukatuak: 15 unitate; Bideango Produktuak: 10 unitate (hauetako bakoitzak, lehengaien %90a, langile kostu zuzenaren %50a eta ekoizpen gastu orokorretik ezer ez darama).
- Ekoizpen Bukatua: 160 unitate.
- Lehengaien Erosketak: 2.000 kg. (4,5 euro/kg.) eta 1.000 kg. (5,2€/kg.)
- Hornikuntza Gastu Bereziak: 4.200 euro.
- Langile Kostu Zuzena: 10.700€ (510 h. lan egin dira).
- Ekoizpen Gastu Orokorrak: 6.500€ eta jarduera 1600 makina-ordutakoa izan da.
- Merkaturatze Kostuak: 2.500 euro.
- Administrazio Kostua: 4.100 euro.
- Benetazko Salmentak: Ariketari dagokion kopuruak (400€/unitateko).

<u>Eskatzen da:</u>

1- ELICO produktu bakoitzaren Ekoizpen Kostu Standard-a kalkulatu, bere Standard tekniko eta ekonomikoekin eta kostu bakoitzaren garrantzi erlatiboarekin.

2- Desbideraketa hauek kalkulatu: **Ezinbestekoa izango da desbideraketa bakoitzak zer esan nahi duen hitzetan adieraztea.Azalpen hau gabe, kalkulo hutsak ez du ezer balioko.**
   - Lehengaietan: Erosketa prezioena eta Kontsumituriko kopuruena.
   - Hornikuntza Gastu Berezietan: Globala.
   - Langile Kostu Zuzenean: Ekonomikoa eta Teknikoa.
   - Ekoizpen Gastu Orokorretan: Ekonomikoa,Teknikoa, Aurrekontuarena eta Jarduerarena.
   - Merkaturatzean: Globala.
   - Administrazioan: Globala.
   - Salmentetan: Globala, Ekonomikoa eta Teknikoa.

3- ELICO produktuaren emaitza kalkulatu. Kostu Standard-en desbideraketen laburpen taula egin.